

KIROL PATRONATUKO
DEKRETUA
2021 KIRO00029

Espediente-zenbakia: 2021/KP_DEK_0025

Xedea

Bermeoko kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko diru-laguntzen 2021. urteko deialdia onartzea eta zabaltzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2020ko apirilaren 24an, udal Osoko Bilkureak, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eta Dirulaguntzen Oinarria espezifikoak onartzea erabagi zan. Oinarri espezifiko horreen artean, Bermeoko kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko diru-laguntzenak onartu ziren.

Bigarrena: 2020ko uztailaren 8an BAOn publikatu ziren Jarduera arrunta finantzateko dirulaguntzen deialdiaren berariazko oinarriak eta 2020ko urriaren 26an BAOn publikatutako izenburu bereko zuzenketak.

Hirugarrena: 2021eko deialdian aurreko urteko testuak ez dute aldaketarik izan eta jarraitu beharreko oinarriak dira. _

Argudioak

Lehenengoa: Gastuak beharrezko kontsignazioa dauka RC 2021/000021.

Bigarrena: Diru-Laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikulua eta erlazionatutakoak.

Hirugarrena: Diru-laguntzen deialdiak onartzeko eta zabaltzeko ahalmena Estatutuen 14.1 artikulua arabera Presidenteari dagokio.

“ 1) Batza Artekariak emandako beste edozein funtzio burutzea edo, estatutuetan aurreikusita egon arren, Batza Artekariarentzat gordeta ez dagoen beste edozein funtzio burutzea.”

Baina 2019ko uztailaren 2ko 2019KIR00016 Kirol Patronatuko Presidentearen dekretu bidez onartutako delegazion arabera, ahalmena presidente eragileengan dago delegatuta.

Erabakia

Goian adierazitako kontuan hartuta, honakoa erabaki dot:



LEHENENGOA: Bermeoko kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko diru-laguntzaren 2021. urteko deialdia zabaltzea onartzea.

BIGARRENA: Bermeoko kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko diru-laguntzen deialdia onartzea eta zabaltzea, eta beharrezkoak diren eranskinak onartzea.

HIRUGARRENA: Deialdi honen publizitatea Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialera bideratzeko agindua emotea Kirol Patronatuari.

HIRUGARRENA: Deialdi honen publizitatea Bermeoko Udalaren webgunean txertatzeko agindua emotea ATB sailari.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E50007328F00F7E3U4C1X0C6

Sinadurea eta data

MAITANE LEIZAOLA ZULUETA-KIROL PATRONATUKO PRESIDENTE ORDEA - 08/07/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 08/07/2021
11:04:50

EXPEDIENTE ::
2021KP_DEK_0025
Data: 25/06/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

